



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko urriaren 6a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Juan Garzia

(Legazpi, 1955)

Euskal idazlea, hizkuntzalaria eta itzultzailea da. Filologia ikasi ondoren, irakasle aritu da urte askoan. Gaur egun erretiratuta dago. EHUKo Euskara Zerbitzuan lan egin zuen zenbait urtez, eta lanpostu horretatik Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO) bilduma zuzendu zuen.

Melville, Borges, Chesterton, Shakespeare, Primo Levi, Schwob, Beckett eta Rulforen obrak euskaratu ditu, besteak beste.

Itzulpengintzako Euskadi Saria eman diote bi aldiz: 1999an, Jorge Luis Borges *Ipuin hautatuak* liburuagatik, eta 2015ean, William Shakespeareren *Sonetoak* disko-liburuagatik.

Itzulpengintzan egindako lanez gain, gramatikari eta estiloari buruzko entsegu batzuk ere argitaratu ditu.

2013an Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Erbeste



Erbeste honetan, emakume batek kontatzen du nola itzultzen den, atzerrialdi luzearen ondoren, sorterrira. Horrek barne-bidaia bat abiarazten du, oroimena orainera egokitu beharrez. Baserri-etxea, giroarekin bat, nabarmen eraldatua da, eta haren jiran azaleratuz doa familiaren haustura. Herri guztia ere ageri da aldian aldiko gertaeren lekuko ahanzkor. Eguneroko eszenen bidez agertuz doa isiltasunen eta galeren lorratza, bidenabar bistaratuz doalarik inguruaren eraldaketa sozial eta fisikoa. Erbesteratze-esperientzia berri bat izatera dator, azken batean, itzulera.

Juan Garziaren argitalpenak (Hautaketa)

Akaso (1987)

Gabonak Gubbio-n (1992)

Itzalen itzal (1993) **N GAR**

Fadoa Coimbran (1995)

Pernixio (1996)

Txirritaren baratztea Norteko trenbidetik (1997) **891.69 Txirrita**

Joskera lantegi (1997)

Erbeste (2026) **N GAR**

Juan Garziaren itzulpenak (Hautaketa)

Bartleby izkribatzailea; Herman Melville (1991, 2016)

Ipuin hautatuak; Jorge Luis Borges (1998) **N BOR**

Aspernen paperak; Henry James (2000)[

Godoten esperoan; Samuel Beckett (2001) **T BEC**

Pedro Paramo; Juan Rulfo (2001, 2017) **N RUL**

Hamlet; William Shakespeare (2002, 2012, 2016) **T SHA**

Moby-Dick; Herman Melville (2023)

Kritikak esandakoak

“Hogeita hamar urte borobil egin ditu Juan Garzia Garmendiak helduentzako fikziozko sorkuntza-lanik argitaratu gabe. 1990etako euskal narratiba-lan kuttunetakoen artean ditut haren Itzalen itzal ipuin liburua eta Fadoa Coimbran nobela, eta horregatik egin zait pozgarri Garzia narraziogintzara itzuli izana. Itzuli ere, itzulera bat kontatzen duen Erbeste nobela laburrarekin itzuli da fikziora legazpiarra: izenik gabeko narratzailea, atzerrian 20 bat urte emandako emakumea, Tolosaldeko sorterrira itzuli da, eta, ezin bestela izan, kanbiaturik aurkitu du sorterria, familia eta ingurunea. Hasi baserrian bertan egindako berrikuntza-lanekin, eta segi familian, herrian eta eskualdean geratutako eraldaketekin, Tolosaldea epizentro hartuta, XX. mendearen azken bi hamarkadetako Euskal Herriko herri txiki baten transformazioa du kontagai Garziak, protagonistaren ahotik: ekonomiaren eta industriaren eraldaketak, sekularizazio-prozesua, gatazka armatuaren arrastoak. Protagonistaren familiaren istorioa du horretarako abiapuntua, baina baita eskualdeko beste hainbat gertaera ere.

Gela ilun batean linternatxo batekin sartzen denaren moduan jasotzen ditu Garziak nobelan gertakariak: orain txoko bat argitzen du, gero bestea, baina sekula gelako sabaiko argia piztu gabe. Irakurlearen esku uzten du, izan ere, gertaera solteen arteko lotura bilatzea, ahapeka esandako hitz batzuek iradokitzen dutenaren atzean dagoen istorioa osatzea. Hartzaileari dagokio, puskaka eta pixkanaka, familia baten eta Tolosaldeko kosmos txiki horren paisaia humano eta soziala osatzea. Elipsiek pisu handia dute, izan ere, eleberri honetan, beharbada irudikatzen den jendarte horretako mundu-ikuskeran ere esan gabekoek eta belaunaldi batetik bestera iragan diren isiltasunek pisua duten modu berean.

Eszenaz eszena eraikitako nobelak, hartara, jakin-mina sortzen du, besteak beste, elipsiaren bidez. Introspektzio psikologikozkoa dirudien nobelak, beste norabide batzuk hartzen ditu aurrera egin ahala eta ez du galtzen irakurlea harritzeko gaitasuna. Bere laburrean, nobela-azpigenero ugariri keinuak egiten dizkie Erbeste-k: ruralismo beltz edo tragikoari (etor daitezke burura Aristiren edo Mujika Iraolaren oihartzun urrun batzuk), baina baita detektibe-nobelari ere (polizi etxerako bisita eta guzti), eleberri psikologikoari... Nobela-molde horietarik bat hautatu ordez, beraz, azpigeneroetan sartu-irtenak egiten ditu, edo omenaldi txikiak nahi bada. Erritmo aldakorra du beraz nobelak, eta erregistro-aniztasun horrek testua aberasten badu ere, irakurle honi iruditu zaio batzuetan ez ote duen horrek berak koherentzia eta kadentziaren kaltetan jokatzen.

Hutsuneari tarte handia uzten dion diskurtsoa osatu du Garziak nobelan, eta estetika horren zerbitzura jarri du hizkuntza ere, isiltasunari eta esan gabekoari aterpea eraikitzen diona. Ez dago gogoratu beharrik Garziak hizkuntzaren gainean duen maisutza, eta horren lekuko da nobela honetako prosa ere, batik-bat joskerari dagokionez. Prosa garden, arrapaladan irakurtzen dena bainoago, patxadan aurrera eginez, bide-bazterrei begira irakurtzeko prosa gozagarria ondu du, neurri batean joan badoan mundu baten hizketa-moldeak ere jasotzen dituen. Tarteka kostatu egin zait, haatik, prosa-molde horretan lehen pertsonako narratzailearen ahotsa entzutea, egilea bera aditu baitut pasarte ugaritan pertsonaiaren partez. Akaso horregatik, pertsonaiaren itzulera eta haren barruak esploratzen direnean baino sinesgarriago eta sendoago egin zait nobela garai, jendarte eta giro bati pultsua hartzen dionean, ederki asmatzen du-eta elementu eta keinu gutxirekin mundu oso bat birsortzen.”

Ibon Egaña / Deia, 2026-04-25

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Juan_Garzia

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9431>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9392>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9390>

Nor da Nor

<https://nordanor.eus/nor?id=32>